



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Aurrekontu parte-hartzaileetan boto gehien lortu dituen proposamena da
Udalak edukiontzia aldatuko ditu, pertsona guztientzat irisgarriagoak izan daitezen

Edukiontzien aldaketa, pertsona guztientzat irisgarriagoak izan daitezen, izan zen proposamenik bozkatuena 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, hau da, azaroaren 11n bukatu zen fasean. Boto gehien lortu zituztenak hurrengo proposamenak izan ziren: lorategiak hobetzea eta gunee berdeak handitzea, Algortan pertsona nagusientzat gunee bat egokitzea, txakurren gorotzak kontrolatzea, plazak egokitzea (altzariak, zabuak, argiak...), bidegorrien sarea zabaltzea hiriguneak lotuz, Villamonteko eta San Nikolaseko liburutegiak hobetzea eta Turismo- eta osasun-ibilbideetako seinaleak hobetzea. Proiektu horiek aurrera eraman ahal izateko milioi bat euroko diru-partida erreserbatu dute, datorren urteko udal aurrekontuetan sartuko dena.

Aurrekontu parte-hartzaileetan aurreikusitako milioi bat euroko diru-partida lehenengo lau proiektuen artean banatuko da: edukiontzien aldaketa hasiera (sistema zehazteke), lorategiak hobetzea eta gunee berdeak handitzea, Algortan pertsona nagusientzat gunee bat egokitzea eta txakurren gorotzak kontrolatzea.

Datuak

Hautatutako proposamenak honela sailkatzen dira jasotako puntuen arabera:

ORDENA	PUNTUAK	PROPOSAMENA
1	7081	Edukiontzien aldaketa, pertsona guztientzat irisgarriak izan daitezen
2	5625	Lorategiak hobetzea eta gunee berdeak handitzea
3	5548	Algortan pertsona nagusientzat gunee bat egokitzea
4	5318	Txakurren gorotzak kontrolatzea
5	5289	Plazak egokitzea: altzariak, zabuak, argiak...
6	5084	Bidegorrien sarea zabaltzea hiriguneak lotuz
7	4523	Villamonteko eta San Nikolaseko liburutegiak hobetzea
8	3292	Turismo- eta osasun-ibilbideetako seinaleak hobetzea

Jasotako botoen kopurua 1315 izan zen (+%22,2); haietatik, 1159 baliodunak eta 156



Getxo

bizi ezazu

baliogabeak. 714 paperean aurkeztu ziren eta 601 online, web gunearen edo posta elektronikoren bitartez (2018an baino 118 gehiago). Prozesuaren parte-hartzaileen profilari dagokionez, hirutik bi emakumeak izan ziren. Adinaren arabera, erdia baino gehiago 41 eta 65 urte bitartekoak ziren. Gobernu Irekiaren Amaia Agirre zinegotziak herritarrak 2017an ezarritako prozesu honetan parte hartzea eskertu du. *“Aurrekontu parte-hartzaileei esker getxotarrek guri euren proposamenak hurbiltzeko aukera dute, guztion artean udalerrri hobea eraiki ahal izateko. Lanean jarraituko dugu herritarren eta Udalaren artean gero eta harreman estuagoa eta aktiboagoa lortze aldera. Hautatutako proposamenek zerbitzua eta erantzuna emango dizkiete, hainbat jarduketa eta tematikatan, udalerriko auzo eta adin ezberdinetako pertsonen”*.

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fase honetan, hiru postontzi jarri ziren Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokietan, proposamenak jasotzeko. Halaber, boto-ontziak egon ziren Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan; gainera, informatzeko karpak ere kokatu ziren Algortako Geltokia plazan, Areetako Geltokia plazan eta Bidezabalgo geltokiaren inguruan, eta parte hartzeko aukera eman zen udal webgunean erabilgarri zegoen inprimaki digitala betez, edota inprimakia helbide elektronikora bidaltzeko eskaneatutako eranskin gisa.

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.